

KONTROL MOZIOA

Donostiako EAG (PAC) zerbitzuari buruzkoa

Juan Carlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko urtarrilaren 15ean Ogasuneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015ean Osakidetzari aurkeztu zitzaion Parte Zaharreko Arraindegi eraikinean kokatuko zen anbulatorio berriaren aurreproiektua. Bertan aurreikusten zen orain Bengoetxea kalean dagoen EAG/PAC zerbitzua bertan eskaintzea.

Horretarako, anbulatorio berrirako, Arraindegi eraikinaren beheko solairuan 800 m² azalera gunea erreserbatzen zen. Aldamar kaletik bi sarrera aurreikusi ziren: bata anbulatoriorako eta bestea, EAG/PACerako. Betiere, EAG Lehen Arretako zerbitzuaren barruan zegoela, bien arteko barne-lotura mantenduz, baina EAG/PAC zerbitzuak dituen ezaugarriengatik (lan egunak, ordutegiak, paziente motak, arrisku posibleak...) bi sarrerarekin.

Kontuan hartu behar da Bengoetxea kalean, gaur egun, 300 m² inguruko azalera dutela, eta tartean lau gela dituztela pazienteak artatzeko, bi mediku eta bi erizaintzat

2015eko proiektuaren helburua zerbitzu horrek azpiegitura eta baliabide egokiagoak izatea zen, eta aukera paregabea eskaintzen zigun anbulatorio berriak, eraikina eta anbulatorioaren beraren distribuzioak erabakitzeko baitzeuden. Kontuan hartu ziren, era berean, EAG/PACeko langileek egindako proposamenak, beraiek baitira gabeziak eta beharrak ondoen ezagutzen dituztenak.

Proiektuak Osakidetzaren oniritzia izan zuen, Jon Darpon sailburuarekin adostu zen, eta 2017rako anbulatorio berria eta EAG/PAC zerbitzuak irekita egongo zirela aurreikusten zen.

2015eko udal-gobernu aldaketarekin, Arraindegi eraikinean aldaketa ugari planteatu ziren, baita anbulatorioan bertan ere. Hainbat arrazoiengatik, epeak atzeratzen hasi ziren eta azkenean, anbulatorioaren distribuzioa erabat aldatu da, batez ere beheko solairuan, non espazioa asko murriztu den; 800 m²tik 280m²ra pasatu da anbulatoriorako erreserbatutako espazioa solairu horretan. Sarrerako ate bat ere desagertu da eta ate bera ezarri da anbulatoriorako eta EAG/PAC zerbitzurako. 280 m² horiek konpartitu behar dituzte EAG/PAC zerbitzuak, anbulatorioko harrera guneak eta estrakzio gelak (gehi igogailuak eta eskailerak). EAG/PACean pazienteak artatzeko gelak era gutxitu egin dira, bi bakarrik utzita (orain Bengoetxea kalean lau dituztela gogoratu behar da).

Office-a oso txikia eta desegokia da eta 3. solairuan aurreikusi da, harrera gunetik eta atentzio geletatik oso urruti, horrek suposatzen duen guztiarekin. Sarrera bateratuak aukera ematen du

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

EAG/PACeko pazienteak anbulatorioko beste guneetara joateko eta horrek arrisku egoerak sor ditzake.


Oro har, zerbitzu hau guztiz kaltetua atera da proiektu honekin, bai langileen lan-baldintzetan bai herritarrei eskainiko zaien zerbitzuan.

Esan daiteke ezinezkoa dela EAG/PAC duin bat kokatu espazio horretan.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

- 1.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, donostiarrek jaso behar duten osasun atentzia duina izan dadin, hitz egin dezala Osakidetzarekin Donostiak kalitatezko EAG/PAC bat eduki dezan, baztertuz une honetan proposatzen duena.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari hitz egin dezala EAG/PACeko langileekin eta Osakidetzari eska diezaiola hark ere hitz egin dezala langileekin irtenbide adostua bilatzeko arazo honi.
- 3.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari aukera guztiak mahai gainean jar diezazkiela Osakidetzako arduradunei, ezinezkoa bada Arraindegi eraikinean EAG/PAC duina ireki, beste kokapen posibleak planteatuta.

Donostian, 2024ko urtarrilaren 19an



Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea